


HIRIGINTZA ATALA

Orbaitzetako Landa Eskolaren aktuazio orubea, fabrikaren orubea berak hartzen du.

Orubeak gaur egun dauden fabrikaren aztarnak eta haietara heltzeko bideak ere hartzen ditu. Inguruko mugak bertako erliebeak ezartzen dituenak dira: iparraldean eta hegoaldean malda malkartsuak mugatzen dute orubea, ekialdean NA 2030 errepideak ixten du orubea, mendebaldetik bigarren mailako bideak egiten duelarik.



Proiektuan eragina duen lehenengo hirigintza legeak Nafarroako Lurralde Antolamendurako Planak dira.

Plan hauek eremu edo zonalde ezberdinetan antolatzen dira eta proiektuan eragina duen zonaldea Plan de Ordenación Territorial: POT_1 Pirineoa da. Beraz, plan edo lege hauetan agertzen diren argibide eta baldintzak jarraitu beharko lirateke proiektua garatzeko momentuan.

Art. 47.- EL ENTORNO DE LA FÁBRICA DE ARMAS.- En el plano P-5 de delimitan los terrenos afectados por esta protección, asimilable a la descrita en el artículo 28 de la Ley N.U.R. como "Entorno de Bienes de Interés Cultural". Por el interés histórico y arqueológico de los restos de la antigua fábrica, dichos terrenos deben preservarse, a fin de no comprometer futuras excavaciones y estudios sobre los mismos.

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN.

a) Actividades no constructivas: Sólo se autorizan actividades destinadas al decoro y mantenimiento de la zona, y a excavaciones o similares oficialmente reconocidas como tales por el órgano gubernamental correspondiente.

b) Actividades constructivas: Podrán autorizarse las construcciones e instalaciones directamente vinculadas a la conservación, mejora y disfrute del propio monumento y su entorno.

Quedan prohibidas todas las demás.

De forma pormenorizada, el conjunto de los 39 municipios que engloba el POT 1 se adscriben de la siguiente forma (Tabla Municipios y población):

AREA	SUBAREA	MUNICIPIO	POBLACION 2009 (Fuente: IEN)	SUPERFICIE (km²)
7	VALLE DE ERRO	ALIZTUZBURGILLETE	293	10,2
		ERRO	777	144,5
		LUZARDEVALCARLOS	418	44,7
		ORDEAGA/RONCESVALLES	20	15,1
TOTAL SUBAREA 07.1. VALLE DE ERRO			1.518	223,5
07.2	VALLE DE AIZKOA	ABARRI/ESNA/BAURBEA ALTA	140	20,9
		ABARRI/ESNA/BAURBEA BAJA	41	11,1
		ARA	59	8,2
		ARNE	49	4,3
		GAZTIA	192	29,2
		GATIBOLA	203	21,2
		HISBERRI/VILLANUEVA DE AIZKOA	127	21,9
		ORMAIETA	219	45,3
TOTAL SUBAREA 07.2. VALLE DE AIZKOA			996	199,6
07.3	VALLE DE SALAZAR	ESPARZA DE SALAZAR/ESPARTZA ZARAITZ	59	20,9
		ESCARDO/ERKAROSE	347	20,3
		GALUESGANDZE	59	45,4
		ORDEAGA/OSA	54	29,8
		UZALZUTZALZU	40	7,3
		JAUARRETA	218	30,9
TOTAL SUBAREA 07.3. VALLE DE SALAZAR			1.179	488,8

Beste alde batetik, kontutan hartu beharreko beste araudi bat **Orbaitzetako Udalaren Lurralde Plana** da. Dokumentu hauetan Orbaitzetako udaleko legedi eta normatiba guztiak aurkitzen dira eta bete beharrekoak lirateke.

Dokumentu honen barruan, gainera, Orbaitzetako arma olako eskuhartze posibleak mugatu eta arautzen dira. Arma Ola, **2006tik Interes Kultureleko Ondare izanik**, bere legeri propioak ditu eta dokumentu hauetan aurkitzen dira.

Irakur daitekeen bezela, baimentzen den eskuhartze bakarrak lekuaren **"apaintze eta mantentze soilarenak"** dira. Monumentu beraren kontserbazio, hobekuntza eta gozatzearen alde doazen erabilera baimentzen direla esanez amaitzen du, eta beste guztiak debekatuta geratzen direla.

Zer da ordea monumentu beraren kontserbazio eta hobekuntza? Bere horretan birrintzen uztea azken 150 urteetan jazo bezela? Ondare interes kulturala duelako hau prezintatu, bertan museo bat ezarri eta bisitari kopurua baino potologoa den interpretazio zentron zerrendan sartzea?

Proiektu honen helburua, ondareari bere balioa identifikatu, baloratu eta indartzeaz aparte, eraikin industrial ohi bat XXI. mendera ekartzea da, egin ahal zaion omenaldi onena eginez: berriro programa produktiboa ere baduen erabilera bat emanez, eta eskualdearekin harreman bat berrezarritu.

Beraz, proiektu honen gauzatzean, ez dira gaur egungo Hirigintza Legeak jarraituko, gaur egungoek lekuaren etengabeko gainbeherari besterik laguntzen ez diotela uste delako, eta bertan museo bat bideraezina izanez, bertan behera utzita dagoelako.